



Īleroko aldizkingi edefgařiduna

Aita Kaputxinoak zuzendua

:—: || V Urtea || 1923'ko Garagarĳĳa || 54 Zenbakia || :—:

Aitagurearen 6.^{garĳen} eskabidea



Et ne nos inducas in tentationem.

Matth, IV-13.

Eta ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen.



EIGAREN eskabidea ikusi bear degu oraiĳ.

Gure utsegin, oker, gaĳztakeri edo pekatu gu-
ziak tentazio edo zirikaldien baten zaĳetik sortuak
izaten dira. Ona, ba, zeĳien bidezkoa dan Aitagu-
rearen seĳafaren eskabide au. Zer auferatuko gen-
duke gure utseĳiĳnak barkatuko ba-lizkigu Jaungoi-
koak, etsaiaren sare beřietan bereala beriz bildurik
arĳituko ba-ĳiĳe? Ezer ez.

Argatik erakutsi digu Jesus'ek gure zořen barka-
zioaren ondotik *tentazioan erortzen ez gaitzan*
utzi eskatzen.

Tentazioa zer da ordea?

Tentazio itza lasai artzen ba-da, euskerazko axekaldia da. Ta ofela
tentazioa izango litzeke, iĳork beste norpaiten zintzotasuna, leialtasuna edo

maitetasuna ezagutzeko egiten dion axekaldia. Gurasoak axeka tzen du bere aurtxo, onek daukan sagra berak jateko eskatuz; edo berak daukanarekin tate egiñez. Nagusi-Etxeko Andreak axekatzen dute moñoi edo neska-me, auek artu lezazketen gauzen batzuek artzeko bidean utzitz; eta onela ezagutzen dute oien zintzotasuna. Eta era ontara, guri gaitzik edo pekatu-rik egiñazteko gogorik gabe axekatzea, Jaungoiko ber-berak egiten duan gauza da.

Ala dio Deuteronomio deitzen dan liburu santuak: axekatzen zaituzte zuen Jaungoiko Jaunak, argi agiri dedin ea zuen biotz osoaz maite dezuten edo ez. (Deut. XIII-3.) Baño ez degu axekaldi auetatik gu ateratzeko eska-tu bea, auek ez dira gure galgari-ta.

G. Zer eskatzen degu «ez gaitzatzu utzi tentazioan erortzen» esatean?

E. Obena egiñazten diguten gogorapen gaizto ta zirikal-dia leku ema-ten Jaungoikoak utzi ez gaitzala, eskatzen degu «ez gaitzatzu utzi tenta-zioan erortzen» esatean. (B. K. I.)

Tentazio itza estuago artzen ba-degu esan nai du «gaiztakeri edo pe-katura eragiten digun *zirikaldia*; ori eldu da deabruagandik, gaiztoetatik edo geren griñetatik (X-gaen Pio'k.)

«Axekatzen du Jaungoikoak, axekatzen du deabruak. Jaungoikoak axe-katzen du ezagutzeko, deabruak axekatzen du gezur egiteko edo engañatze-ko». (Inocentius Pap. III.) Gizonaren kaltegarizko axekaldia edo zirikal-dia beñiz beregandik, edo lagun urkoagandik edo deabruagandik datorkio, eta ori bi aldetara, au da, edo gorputzekoa edo animakoa. (Gunterus Cister-ciensis.)


Oñek esan nai du, zirikaldi, animaren kaltegaria, itsatsi zaikigukela edo gorputzaren bidez edo zuzen-zuzen animean, gaiztora eragiñez. Gogorapen gaiztoak zuzen-zuzen animari eltzen diote askotan. Auetatik atera gaitzala eskatzen degu, ba, *tentazioan erortzen ez uzteko* eskatzean.

Zein dira gure zirikalari gogoñenak?

Gure zirikalaririk gogoñenak, animaren iru etsaiak dira; au da, *mun-dua* edo gaiztoak, *deabrua* ta *aragia*.

Ala erakusten dute Santo Bitore'ko Ugo'k eta Sena'ko Bernardino san-tuak. «Aragiak zirikatzen digu jan-edan naikeriaz eta loikeriaz; gaiztoak zi-rikatzen digute ondasunaz eta galtzeaz, ondasunaz gu lilurazteko, galtze edo kalteaz gu beartzeko; deabruak beñiz alde guztietara ekiten digu ta gai-ztakeri guztietara gu eramateko saiatzzen da. (Hugo.)

Bernardino deunak beste era batera adirazten digu. «Bi aldetara, dio, zirikatzen digu aragiak. Añena onetik atzeraziz ta bigaen, gaiztora makur-tuz. Bi aldetara zirikatzen digu etsaiak: Añena eragiñez ta gero nasiz; era-giñez onaren itxurapean, nasiz eroriak ez ditezen jeki. Mundua edo gaizto-ak ere bi aldetara zirikatzen digute. Añena ontasunez ta uñena kalteaz, len esan degun bezela.



Berdin al da zirikal-di edo tenta- zioak izatea ta oietan erortzea?

Ez inolaz ere. Jesukristo berak izan zituan etsaiaren zirikal-diak, baño etzan oietan erori. Gizonaren luñ gañeko bizitza, zirikal-dia da, esan du Job santuak; itz oiekin adiraziz, auek gabekorik ez dala Adan'en umetan.

Zirikaldi edo tentazioak izatea ez da, ba, pekatua. Irabazpide askoren iturburua da zirikal-dia. Uzkufago, erneago ta begiratuagoa egiten du ona zirikal-diak.

Urea ta zilaña suan ezagutzen dira ta gizon autugañiak uzkuñaldietan. (Eccles. II-5.) Jaungoikoari atseginga-fi zitzaiolako, zirikal-diak zu ziztatzea bear izan zan, esan zion Aingeruak Tobias'eri.

Pablo bialdu deunak eskatu zion Jaunari, kentzeko beragandik ainbat neke ematen zion zirikal-di edo tentazioa ta berak aitortzen digu Jaungoikoak erantzun ziola: naikoa dezu nere grazia edo esker ona: onbidea argaltasunean sendotzen da-ta. (II-Corint. XII-8 eta.)

Zirikaldiak gure inda-ñen gañezkoak ez diranean ondasuntsuak dira, ba.


* * * * * * * * *

Argatik dio Ori-jenes'ek «otoitz egin bear degu ez zirikal-dirik ez izateko; baizik zirikal-diak ez gaitzan inguratu, bildu ta ondarazi; au gertatzen zaiote oietan gelditu ta garaituak izaten diranai-ta. Tentazioan edo zirikal-dian sartzea, irudi du, ba, dala zirikal-diak azpiratzen duanean; irudi bai du tentazioak, igarotzeko zaña dan eñeka. (S. Zirilo Jerusalem'da-fak.)

Urak artu ta osiñeko ur biguñian ez gaitzan inguraturik ondarazi bear diogu Jaungoikoari eskatu esanez: *ez gaitzatzu utzi tentazioan erortzen.*

Asko naigabe sortzen zaigu deabruagandik, gizon gaizto ezagun eta izkutukoetatik, gure gorputz pisu astun eta animaren nekagañiagandik. Oiek guzietatik datozkigun zirikal-di guzietatik zaitu gaitzan eskatzen diogu Jaungoikoari; berak pakatu ta baretzen ditualako ekaitzik gogoñenak. Eta gaizto ustela (deabrua) añen esanera ateratzen da, txefietara joango bada ere Jaunari eskubidea eskatuz. (Krisost. S.) Ortarako esan bear diogu, ba, Jaunari biotz-biotzez eskabide gozo ori.

Intza'r D. An. O. M. Cap.



GURASOENTZAT



orena izango ote da efua?

Efiko Apaiz Jauna etxe batera sartu zan. Arpegi ilunak arkitu zituan. Senaŕa leyoaren ondoan. Emaztea exerita, baño lanik egin gabe, negaŕez dago.

Zer da! beti bezela zaudete? Bai, Jauna, beti bezela edo okeŕago. ¡Gure semia! ezin zuzendu.

Eztitu gure itzak entzuten.

Ta zuek, galdetu zien Apaiz Jaunak, entzuten al ziñituzten zuen gurasoen itzak?

Guk? Bai, bai; gure amari negar egin azi? ez orixe.

Bai aldaki zuen seme oŕek jakin bear duan dotriña?

Dotriña? Gurutze Santua ez paitaki?

Ta zuek egiten al ziñuten txikiak ziñatenian? Bai, bai noski, ta ongi; gañera igandetan gure gurasoen aŕfetik joaten giñan Elizara, beren ondoan, ta beñere berak utzi gabe.

Begira bada nere adiskide maiteak: uek Zobeditu siñioten zuen gurasoi, berak gogor egiten zizutelako; zuek elizara joaten ziñaten, zuen gurasoak joaten ziralako.

Baño orain, joaten al zerate zuek? egiten al diozute gogor zuen semeari?

Norena ote da ba efua?

Ez dute etxean (ejemplo) ikasbide onik ikusten, ez dituzte ikusten etxean beren gurasoak belauniko jañita otoitz egiten; ez dute zuen ezpañetatik gauza onik entzuten; ta alpefik da; bai alpefik da.

Ez da naikoa esatea zuen semiai: «Zoazte elizara, zoazte eŕosario santura,» ez; «goazen» esan bear diozute, goazen guztiok.

Baño ez da ori gertatzen. Zein erakusketa edeŕa izango dan semientzat, gauean aita lanetik datoŕenian, kendu txapela, ta bere esku nekatuetan erosario santuko aleak pasatzen ba-ditu.

Baño bestela, ama, bere semiaz inguratua sukaldean dagonian ikusten badute aiek, berakin otoitz egin beaŕean, aita bere emazte ta semeak utzita etxetik kanpora dijoala... Nora? Bear ez diran tokitara, ostatu, taberna, bere lagunakin apaltzera... zer egingo ote dute bere semiak?

Zer ikasi bear ote dute olako gurasoengandik?

Norena izango ote da efua?

GABRIEL O. M. CAP.

Jostatu zuzen



ERESA onak arpegi iluntxoak zeukan, etxetik iges egiten asi ta utzi etziyotengan. ¿Nora uste dezute bederatzi urteko nexka koxkofak joan nai zula?... Moro tartera eriyotzaren bila: Jesus'ekin zorionekua izatera zerura joan nai zun; bere odolarekin ordeak zerua irabazi nai zun.

Amets au ezin bete eta burutik ezin kendu zuala arkitzen zan beste amets batek zoratu zuan arte.

Martiria izaten utzitzen ezpazioten etxekoak, basamortuko bakardadean bizitzen bada're utziko al zioten ba! Bakardadean egoteko gogo ari jarraituaz baratzako txoko batian atsalde osoak bere a-

nai Rodrigorekin igarotzen zituan.

Antxen ari koxkofak bata besteari nagan jariyaz, ziyotenez, elizatxo politak, anai-arebak egiten zituzten.

Atsegin gozoak Jaunarentzat erugabeko umetxo aien otoitzak. Lagun ona zala ikusita, Teresa'ren ondora neskatil asko etortzen ziran bere lagunak izateko.

Baratzako alderdi zoragariengan bazan zurezko txabola bat untzaz erdi estalia: Bein batian Teresa bere lagun txoekin aruntza zijuan.

— Amets onik, bai alderamaz «regina angelorum» aingeruen Eregin txiki ofek? galde egin zion Rodrigo bere anaiak— bitartian eskutan zeraman bilota gogofarekin kaskatako galanta Beatriz'eri, zazpi urteko nexka txikiari buruan emanaz— nora zuazte?

— Jostatzera gikusten eztezu?

— Lokari-trisken ibiltzera?

Trinkilin-trankulun ederki aspertu gera motel.

— Niniekin jostatzera gezta ala?...

— Ez ba ofa. Oraingoan monja jantziko gera,—erantzun zuan Teresak.

— Apaiza jantzita Meza eman zala guk entzuteko, esan zun Beatriz muxu gofiyak, artu zun kaskafekoaren indaiez pixkat ondorean.

— Ara befiz, pinpilinpautxa ori—Rodrigok.

— Ez orixen, Teresak befiz: ortarako onagua bear du izan: geienez meza laguntzale edo ofela...

— An zijoak Rodrigo, jantzien bila noski. Txabolan sartu ta Teresa're monja jauzten da: lagunak bakoitzak al duan bezela muxu zapiekin edo man-

taliñekin burubak estali dituzte. Teresak eskuak mauketan sartu ta lufian exeri danian, ayek ere eskuak mauketan sartu ta exeri dira.

Jaungoikoaren maitetasunaz itz egiten asitzen danian, bai aingeru zora-zoragafia Teresak dirudiela: bere itzalditxoak sututzen diñu lagunuen biotzatxuak eta guziok belaunikatzen dira argizari muñuen erdian Teresak ipiñi dun Jesus Aurtxoaren iruditxoaren auiñan.

Guazen oraiñ, esan zien Teresak, len egin degun gurutzearen aufera eta... kanta-kantari aren ondotik nexka gaxuak an dijoaz.

Lore bikañarekin egindako gurutze aren auean agurtza (erosariyua) esaten asi ala txiliñarekin soñua.

Rodrigo ber-be-



ra zen meza-laguntza learen jantziarekin. Ifi-bafari eman da aingerutxo-aiek agurtza utzi egin bea' izan zuten.

—Amak esan dit, Rodrigok ojuaz zion eta txilinari eragiñaz Terexa ta bere monjak txokolatia artzera joateko ta... poz-pozik Rodrigon atzetik txokolatia artzera nezka txikiak joan ziran...

Teresa bezin onak nai dezue izan?

On-erugabeak diran jostatzeei esku eman... Lagun-gaxto zipoterik beñere ez izan... eta


Jolastu zaite, baña zuzen
Iltzian damutu etxaitezen
Nexkatil' ona aditzen dezu? aditzen?

OYARTZUNA O. M. CAP.






h salutaris



Donostia'r J. A. A'k ereskidetua.


U - ni tri - no - que Dó - mi - no,
O sa - lu - ta - ris Hos - ti - a,




sit sem - pi - ter - na glo - ri - a; Qui vi - tam si - ne
Quae cae - li - pan - dis os - ti - um, Be - lla pre - munt hos -



tér - mi - no No - bis do - net in pa - tri - a
ti - li - a, Da ro - bur, fer au - xi - li - um



A - men.



Ogi-antz osasungafi
Goiko atal-zai on-ona:
Etsaiak ekin digute,
Lagundu, eman indaŕa.

Irutasun Jaun Batari
Betiko gorapidia:
Berak bekigu zeruan
Azken gabeko bizia.

(AURENTZAKO)



GITEKO batekin eñiz-eñi nebilela, sagraioan Jesus bakañik egon bide zabala ta Berari apur batean lagun egiteko asmoz eliza batean sartu nintzan. Apaiz Jaun agurgari bat neska mutiko sail bati erligio gauzak erakusten ari zan. Zer esaten ote zien entzuten jai nintzan. «Kristau on-onak izanik zerura joan nai badezute, zion apaizak,—Jesus Aupa ta bere ta gure Ama laztan Andre Maria txiki-txikitatik gogoñ maitatu itzatzute.» Eta ondorean onako gertaeratxo au jalki edo kontatu zien.

«Lisboa'ko jauregi batean Pernando izena zuan, bost urteko mutiko bat bizi zan. Oso zintzo ta maitatia zan. Miñ ta befeungafen urteko Egubegi egunean ate otsa aditu ta deika nor ote zegoan ikustera Pernandotxo atarira jetxi zan.

Aur ilegori, begi-urdin, zoragari bat zegoan ate-joka. Eskuan makilatxo bat zeukan, artzaitxo jantzita ta oñtsik zebilen. Bere ondoan Andre edef bat zegoan.

—Nor aiz, mutiko polit ori?—Andre ori zein dek?

—Nundik zatozte galdetu zien Pernandok.

Aufak erantzun zion:—Ni maitetasun eskale nauk eta Andre laztan au Maitetasun Edefaren Ama dek. Zerutik jetxi gaituk. Nere Aita Zeruko Efege dek eta nik ere efege aulkia berearen ondoan zeukeat. Berak daukan guztia nerea dek; eguzkia, izañak. luña ta itxasoa nereak dituk; eta Efege izan afen eskale egin nauk... Iri biotza eskatzera etori nauk. Eman nai aldidak?...

Eta Andreak esan zion:—Nere seme izan nai al dek?; ire biotza emango al didak? Baño Ni maite izatekotan nere Semea ere maite beañ dek eta bere Ama maitatu gabe nere Semea eziñ maite izango dek.

Pernandok zer gertatzen zitzaion etzekian; eta tolesgabetasunik aundienaz galdetu zien:—Nere biotza eman baño len nor zeraten eta ze izen dezuten jakin nai nuke.—Nola dezute izena?

—Nere izena, Jesus—esan zuan Aurchoak.

Eta biak batera galdetu zioten. Ire biotza emango al diguk?



—Bai, Jesus; bai, Maria: beti-betirako ematen dizuet—Pernandok erantzuten zien.

—Nik ordañez semetzat artzen aut; ire bizitza guztian nere semerik maiteenetakoa izango aiz; eta ni ere Ama izango nauk. Andre Mariak esan zion.

Ata nere biotzeko adiskiderik aundiena izango aiz -esan zion Jesus'ek. Eta bizkafean zeraman zofoetxoa eman zion esanaz: Oto, nere eskubidea, nere jakintasuna, nere maitetasuna... iretzat. Oien bidez arima asko erosi beaf dizkidak... eta zofoetxo onekin mirariak egiteko eskubidea ere ematen diat. Au esan da, Jesus eta Andra Mari ezkutatu zizan. Pernandok geroago Antonio izena artu zuan eta oraiñ Padua'tar Antonio Doatsua deitzen zaio. Antonio Doatsua, bada txikitatik Jesus eta Maria oso maite izan zitualako, ofen Santu aundia egin zan. Zuek ere, onak izan nai badezute oraiñ asi ta gogoz maitatu itzatzute ta ofetarako Padua'tar Antonio Doatsuari laguntza eskatu zaiozute ta Santu Aur-zale onek mesede ori oso pozik iritxiko dizute.»

A'tar Ak.

Sakramentu Deunari



Zure soñaz, Jauna, egin zendun eztia;
Zure nekaldiaz gertu zendun ogia,
Ezti gozo-gozoa,
Ogi sendogafia...

Bizitza guzian izan ziñan okiña;
Zure soñ bikaña izan zendun iriña,
Birjiñaren aragiz
Jaungoikoak egiña...



Mairasuna euki zenduan legamitzat,
Indar orodunak lan eiteko eskutzat,
Lan eñaxa benetan
Esku aiñ bikañentzat...


Odolaz oratu zenduan ogi deuna,
Neke ta izerdiz egiñ ofen leguna,
Gogoen bazkaria,
Maitaleen zoruna...

Kixkaldu zenduan Biotzaren labeaz;
Zuri atera zan maitasun-sugafean,
Len beltz-jafi zana
Eguzki-odolean...

Nekaldiñ lan egiñ zenduan iltzeraño
Ogiri betiko indar emateraño
Zugan bizi gaitean
Biziko geranaño...

¡Ori egiñ zendun lan aiñ afigafia,
Zuretzat gogofa, gutzat dana eztia,
Gogoen janaria,
Bizitzaren bizia!





Bozate, Arizkun'go auzoa

(Foto. Fr. F. P.)

Apaiza ta bizaregilea

III



AXO Patxi, nondik zabiltz?

—Amerikanoarekin bufukaldi bat ateratzetik.

—Bufukaldia ala ere? Lengo astakeri beretan al dago edo?

—Lengotan ez, jauna, lengoan zuk esana nere etxe-ko atalondan bildurik zeuden lagun askoren afean esan nion eta efiko guziak aŕen lepotik naiko paŕa egin gendun. Baño etzait, ba, gaur etofi esanez Pazkoaz egin degun guziok (ta bera ez beste guziok gera) Apaizak beti belafitik erabiliko gaituen *kankalu* batzuek gera-

la? Alajañena, kankalurik baldin ba-da eŕi ontan i izan aiz bat bikaña ire aurzaroan eta orain ere ez zekiat ofegatik ezer geiago ote aizen, esan diot.

—Zuk ere gogof ekin diozu oraingoan.

—Bai, jauna, ta ba-du zerpaŕen beaŕa. Guri kankaluak deitu ofek? Ez ba-geneki gero eŕe nolako buru-gogofa zan bera, naiz dotriñarako, ta naiz ikastol edo eskolarako, nonbait or zan. Baño irurogei lagunen artean ez baitzan iñor ori baño lotugorik eta beroŕengatik azken azkeneko, zartu-ta ondorean, iya Amerika'ra jun bear zulako edo, gure Jauna eman bai-zioten ta oraindik dotriña erdika naskatu besterik egiten etzuala, ta orain guri kankaluak!

—Ez berotu, Patxi, ez berotu.

—Jauna, barkatu nere gaizki esanak, baño len ere nik esan dizkiot ofi egirik aundienak, baño beŕiz ere aituko ditu neregana asko gauza esanez ba-dator.

—Eta ez dizu geiagokorik esan?

—Ba, jauna, esan dit, ea zer egiten degun ofenbeste aldiz aitortzen ibili beaŕ izateko; berak guk baño egun batzuek geixago ba-dituela aitorturik, baño zer aitortu ez dakilako ez dala joan.

—Eta ortara zer erantzun diozu?

—Ortara? Ea ikasi al duan iñoiz zuzen zer aitortu beaŕ dan edo zer ez.

—Eztago ain gaizki esana. Baño, beste batean ofelakorik aipatuko babilzu Jaungoikoaren Legeko mandamentuak amaŕ dirala esan beaŕ diozu; ta amaŕak ondo begiratzen ba-litu, aurki arkituko lukela bere baiŕen alditxo bateko zer esana.

—Jauna, Jaungoikoaren Legeko Mandamentuak ez al ditu azturik edukiko!

—Baño zuk ez al dakizu Amerikanoak guk baño zortzi Mandamentu gutxiago izaten dituela?

—Ja, ja, jai, aundiagoak adituko ditugu oraindik. Zer Jaungoiko dute, ba, an?

—Gizona, gizona! Ori etziñekin zu bizargilea izan-eta?

Amerikano askok, an aztutzen ditute bi Mandamentu ez beste guziak.

—Zein Mandamentuekin gelditzen dira ba?

—Nik eztut iñor iltzen, iñori ez diot gaitzik egiten eta iñori ez diot osutzen (esan nai du gauza txikirik).

—Aizu, jauna, ta oietxek esan dizkit, zer aitortu ez duala esan ditenian.

—Baita esango ere. Beste zortziaz etzaiote ajolarik.

—Jauna, gañera esan dit amaf duroko bat emango ba-liote ere ez litzekela kofesatzea joango.

—Ordun lengo Amerikanoana dio ofek ere. Afeke omen zion: «Zoazte nai badezue zuek konfesatzea, ni beintzat ez niñukek joango mila pezeta emango ba-lizkiekete ere». Eta beste batek erantzun omen zion, gureari ere aurki ongi letorkiokena.—Obe dezu bai etxean gelditu. Mila pezeta jasoko ba-ziñuzke ere, bi mila edo amaf mila edo geiago *itzuli bearean* arkituko ziñe-ke-ta.» (Euskaldunaren almanaka 1911'an, 60 orialdean.)

Befiz ikusten detanian aitu beaf ditu ofagatik bereak.

—Bereak eta asto beltzarenak ere esaten al dizkiotzu, ea lixu bat ona egin-arazten ote diozun.

Egi-zale O. M. Cap.

Siñismenaren Zabalkundea



ER da Siñismenaren Zabalkundea? — Siñismenaren Zabalkundea deitzen diogu siñistasuna zabaltzeko ta zabaltzeko dan Alkartasuna.

Alkartasun edo Asociacio ori baztar guztietan ari da jartzen eta indafa artzen.

Iru saletan berexia dago Alkartasun ori, beste ainbeste kristau motentzat.

Lenengoa da *Apaiz Misiolarien Batza* ta au da Apaizentzat.

Bigafen sala da *Siñismenaren Zabalkundea* deitzen dana ta au da kristau amabi urtetatik gorakoentzat.

Irugarena da *Aurtzaro Deuna* deitzen zaiona ta au da berez amabi urtetarañoako aufentzat; baño ogei urtetarañoakoak izan ditezke laguntzale.

Napafo'an azkeneko urte auetan indar aundia artu dute iru Alkartasun auek, baño batez ere lenengo ta irugafenak.

Aurtzaro Deuna (santua).

Siñismen gabeko aufei laguntzeko jafia dagoan Alkartasun ortan, *eun eta*

amaika Sail befi amaf lagundunak egin dira 1922'gr. urtean. Lendik zeudenakin ba-dira *bostetan eun irurogei ta amabost* (575) sail Napafoan.

Gurasoak utzirik galtzen diran aur siñismen gabeak biltzeko, eman dituzte *sei mila* (6.000) pezeta.

Kaputxinoetan.

Iruña'ko Kaputxinoetan bildu dira urte ortan eun eta larogei ta amar (190) pezeta;

Altsasu'ko Kaputxinoetan befeun eta irurogei ta bost (265);

Lekarotz'ko Ikastetxean, *saletan* irureun, larogei ta lau, ogei ta amar zentimoekin (348, 30) eta bereortan bakarka emanak eun irurogoi ta amairu, irurogei zentimoekin.

Guztia Eliz Bafuti ontako Aurtzaro deunaren buruei eman zaiote.

Siñismenaren Zabalkundearen onez.

Ez ditugu aipatu gabe utzi nai, gure Aitaen batzuek Zabalkunde ofen alde egin dituzten lan batzuek. Urte ontako Ilbeltzaren ogei ta bederatziaren Lizafa'tar Gumersindo Aitak itzaldi bizi, xamur eder bat egin zien Guli'ibafeko bost efiei. Guli'ko elizan egin zuan, Misioetako ikusgafi asko begien afean artarako tresnakin ezariz. Eta bere artan eskaldi bat egin zan Aurtzaro deunarentzat.

Irunbepi'n Murtxante'tar Gaspar Aitak beste itzaldi bat egin zuan, efiko guzien atsegin aundiarekin. Onak ere ikusteko asko begi afean jafi zizkieten ikusketako tresnaz. Ofen ondotik jafi zuan Aurtzaro deunaren Alkartasuna.

Misiozaleen Batzafea Iruña'n.

Iruña'ko Misiozaleen edo siñismenaren Zabalkunderako dauden iru Alkartasunak batzaña eder bat egin dute Iruña'n. Kaputxinoak Sigmaringa'tar Fidel deunaren omenaz edo onraz egin duten irufeneko bigafen eguna zan. Jesus-Maria'ren elizan Iruña'ko Kanonigo, Apaiz eta Praile mota guzietakoak arkitzen ziran, beste kristau askorekin batean. Alkartasun oien buru diran Gufea'tar Bitor, Eleta'tar Alejo ta Laguardia'tar Florentzio Apaiz jaunak eta beste asko agiri ziran mai buruan.

Lendabiziko itzezin zuan Laguardia'tar Florentzio Kanonigo jaunak Siñismenaren Zabalkundean Iruña'ko gizonak sartzeko zer lan egin beaf litzekan adiraziz.

Ufena itzezin zuan Eleta'tar Alejo jaunak eta onak erakutsi zuan Irugafendafak zenbat lagundu lezaketen *Aurtzaro Deuna* zabaltzeko ezagurazteko; aibat bide ta ain eragilak dauzkala Irugafen Ordenak ari bizia emateko zion. Azkenean eskatu zuan Aurtzaro deunaren urteroko jaia aunditasun edo apaintasun aundiagoakin egiteko oraindaniokoan baño.

Afen ondotik, Yabar'dar Ladislao Aita Kaputxinoen Iruña'ko Buruak itzezin zuan Misiozialien diru-kutxatielez. Esan zuan kutxatila oiek ez dirala bakafik misiotarako dirua biltzeko, baizik baita ere afean biotzetan efukitasuna, goi-maitasuna ta aur gaxoen zeruratzeko gogoa esnarazteko bidea.

Beste Aita Kaputxino batek, Lizafa'tar Gumersindo Aitak galdetu zuan ea non iritxi ote ditezken diru-kutxatila oiek eta Albeniz'tar Apaiz jaunak erantzun zion esanez, Bilbo'n egiñikakoak bukatu rik, beste Misio etxe batera eskaturik zeudela. Aita ofek berak esan zuan berealaxe gizon Misiozialien iru sail berealaxe izentatu zitezke la geroko utzi gabe. Afeenekoa, emakumeen saletan sarturik dauden gizonakin, bigafena Irugafen ordenako Burutza edo Junta'ko gizonakin eta

irugařena Irugařen Ordenako emakume Burutzakoen gizon eta semeakin. Irugařen Ordenaren Zuzendari ta Kaputxinoen Buru Yabar'dar Ladislao Aitak ontzat eman zuan asmo ori ta berealdetik itz eman zuan bereala Irugařendařakin bi giza sail egin ditezkelat Siñismenaren Zabalkunderako. Batzarkide guztiak ontzat eman zuten egin zana ta beren txalo bero, sutsu ta luzeaz beren poza adirazten zuten.

MISIOETAKO BĒRIAK (Asia)

Agra'ko Misioa (Ipařaldeko India.)

Maoma'tař (Maometano) bat, kristau

II



ITA Bernardino'k beařenekoak diran siñismeneko egiak erakutsi zizkion ta baita ere Bataioko gauzak san nai dutena adierazi. Batez ere biotza ikutu zion Bataiokoan bein ta beřiz ateratzen dan *mořoitza* itzak esate baterako: *Signo tibi scapulas ut suscipias iugum servitutis ejus* eta esaten zuan:

—Auxe da Jesukristok artzeko esan zidan mořoitza.

Ola laburki erakutsi ta amabitxi izateko pařokiko andre bat deitu ondoan, andre maomatařa elizara eraman ta bataiatu zuten.

Biotza samurtzeko gauza zan erlijioko gauzak ikasteko zeukan gogo bizia: dana laixter ta biziřo siñisten zuan. Amabirjiñak ta Santuen irudi edo imajiñen ařean gelditu ta zeñen irudiak ziran jakin nai zuan baño, A. Pedro M.^a Kaputxinoak ipiñitako Jesus'en Biotzaren irudi edefa ikusi zuanean, bela esan zuan:

—Badakit noren irudia dan; niri agertu zitzaidan Jesukristo berbera da; bere itxura berbera du: au bezel-bezela jantzia zegoen ta bere besoak onenak bezela nigana zabaldurik zeuden; bañan ařek, bere mořoitza artzeko esan zidanen, bere eskubiko eskua nere buru gañeak ipiñi zuan.

Beretzat ta bere iřobantzat dominoak (medařak) ta beste jaiera edo deboziozko gauzak eskatu zituan. Aitak elizan utzi zuan bere lengusuakin, an geixeago egon nai bai zuen. Andik pixka batera Aita beřiz deitu zuten; Mariam kristau beřiak agur egin nai zion. *Burkaz* beti estaliak zeuzkan bere eskuetan Aitarene eskuak artuta, makuřtu zan Jaunari Aita bedeinkatu zezala eskatu zion. Bataiatu beřiaren lengusuak nongoak ta zein sendi edo pamilikoak iñori ez esateko eskatu zioten: ta alde egin zuten.

Orain bere osaba zařak Muzaffarnagar'en daukan etxera itzuli da ta ondo begiratua dago. Senařak, ordea, ez du onik ta lengo erlijiara itzuliazteko egiařak egiten ditu.

Onak ematen zizkion neke ta samintasunak bere ondoan idukitzera osaba zařa beařtu dute, baño senařa samindurik dago ta, agiri danez, andrea bere igeslekutik indařez artu ta uřuti eskutatzeke asmoa dauka. Mariam'ek Aita Bernardino'ri argia ta laguntza eskatu zion; ta onak Meeruř'eko Misiolariari eskatu zion bataiatu beři ařen alde zerbait egin zezala, Muzaffarnagur'tik Meerut Anbala baño urbiřago dago-ta. Ni ura ikustera ta bere osabarekin itz egitera jua nintzan.

Oso ondo artu ninduten osaba zařak ta lege-gizon ziran bere bi semeak.

Oraindik atsekabeturik daude ain aundizkia bera, ta ainbeste aundizki-aide ditu-an andre au Bataioa artzerakoan bezin sendo siñismen befian ikustez. Baño ez diote naigaberik eman nai. Anbalako Aitak eman zizkion Dotriña ta otoitz liburuak irakufi ere egiten diote. Mariam ikusi nai nuala esan nien; baño gozo-gozo erantzun zidaten *parda* andrea zala, au da gizonen afean iñoiz ere arpegia ageftu beaf ez dutenetakoa.

Nik ésan nien, kristaua zan ezkeru, bere apaizari itz egiteko eskubidea zeukala. Orduan deitu zuten ta agefaldiaren befia bere aotik entzun zuen. Bere asmo onaren sendotasunak afitu nindun ta otoitz edo orazio egin ta animazko gauzetzazko liburuak irakurtzeko adieraztera eman nion. Ontan bere lengusu batek andre Europa'taf bat erlijioiko gauzak erakustera maiz joaten zala esan zidan. Muzaffarnagar'en katolikorik etzegoela jakiniñ, erne egoteko esan nion, andre ura protestantea izan zala bildur nintzan eta: protestanteak nor ziran azaltzen saiatu nintzen erlijio befia ia.... zala esanaz. Lengusuak au aditzean esan zuan: Aditu det, orduan au ezta egiazko erlijioa ta Jesukristo'k (berak Jesukristoren izen santuaren afean begiramentua, adierazten duan *Hazrat* itza ezañi zuan) *Erlijio zañean* saftzeko esan zion.

Andrea Meerut'era joango da ta an epaileku edo tribunalean kristauen legeen arauera bizial izateko eskubidea eskatuko du: Paulo santuaren legazka edo privilegioaren bidez azke edo libre gelditzeko ustea dauka.

Epaile edo jueza siñismenaren alaba onenganako zuzena izango dala uste degu. Bitartean senafa Meerut'eko bidean andrea afapatu ta eramateko neufiak artzen ari da. Baño guk poliziakoen laguntza eskatu ta, ola, epaileku edo tribunaleko ateetaraño ondo gorderik eramateko asmoa daukagu.

AITA EMILIO, O. M. CAP.

Meerut, San Jose'ren eliza, 1922 Joñaila'ren 10'ean.

BERIAK

Katolikoak Ameriketean.

Benetan pozgarriak dira Latefi Elkartuetatik (Estados Unidos) datozkigun befiak. Gero ta katoliko geiago ari dira egiazko Elizaren magalera etortzen. Gero ta sakonagoak ditu emen bere zuztadak Jesus berak landatu duan Zuañtz onek. «Jaungoikoa ta Abefia»

Zenbaki edo numero oiek asko esan nai dute, bañia ezta ori dena. Goi-amerikafak «Jaungoikoa eta Abefia» itzakini elkartasun aundia egin dute, «National Council of Catholic Men» deritzaiona.

Elkaftasun au asko zabaldu da Goi-Ameriketean bafena ta ikasbide, itz ta oitura onen bidez gogof egin nai die oitura gaiztoai ta legeai bear zaien begirapena erakutsi.

Katolikoak eta antzoki edo teatroak.

Oraindikan emen egin ezdan elkartasuna egindute goi-amerikafak. Antzokietan lan egiten duten katolikoak ere elkartuta daude. 1.917'an 400 ziran ta gaur geienak bertan sartuak dira. Elkartasun onek 300 antzoki egin ditu gaurko auferapen guziakin. Elkaftasun onek New-York erdi-erdian dauka bere etxea ta txit edefa gañera. Elkartasun onek ezta komediegilen ona bilatzen bakafik, beste guziena ere bai, teatroa ondu ta onen bitartez oitura onak erakutsiaz.

Urtero iru eguneko batzaña egiten dute ta azkenengoan guztiak Jauna artzen dute.

Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan. Iruña'ko Kaputxinotan.